

Zortzigarrena.-

**UDAL ONDASUNAK ERABILTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUEN
ORDENANTZA**

1.- Kultur Etxeko aretoen prezio publikoa.

1.1. Erabilera publikoa (hezkuntza eta kulturaren inguruko ekintzak eta irabazi asmorik gabeko erakundeen ekintzak): doan

1.2. Hileta zibilak: doan

1.3. Erabilera pribatua (ezkontzak eta irabazi asmoa duten erakundeetako ekintzak):

Egun osoa: 50 €

Goiza edo arratsaldea: 25 €

Aretoa aldi baterako, hau da, denbora batean hainbat emanaldi emateko, alokatzen duen pertsonari edo taldeari % 60ra arteko hobaria egin ahal izango zaio, interesdunak aurrez horrela eskatzen badu, eta kultura batzorde informatzaileak aretoan egin beharreko ekintzak gizartearen interesekoak edo onura publikorako izateagatik horrela proposatzen badu.

2.- Musika ekipoa eta bestelako udal ondasunak erabiltzearen prezio publikoa.

A taldea: Eskoriatzako kultur eta kirol talde eta elkarteak.

B taldea: Gainerako eskatzaileak, herrikoak nahiz kanpokoak.

A taldekoek, hau da, Eskoriatzako kultur eta kirol talde eta elkarteek, udal ondasunak doan erabili ahal izango dituzte, betiere, egin beharreko jarduera herrian egiten bada; herritik kanpo egiteko baldin badira, B taldeari ezarritako tasa aplikatuko zaie.

Hala ere, utzitako ondasunak zuzen erabiliko direla bermatzeko, 100 €-ko bermea jarri beharko dute Udalean.

B taldearentzako 2016rako tarifak honako hauek dira:

1. Musika ekipoa..... 180,00 €

2. Eszenarioa, m bakoitzeko..... 8,00 €

3. Aulkiak, bakoitzeko..... 0,50 €

4. Mahaiak, bakoitzeko..... 6,00 €

5. Karpa handia50,00 €

- 6. Karpa ertainak, bakoitzeko..... 60,00 €
- 7. Sutegiak, bakoitzeko 15,00 €
- 8. Taloak egiteko mahaia 200,00 €
- 9. Parrila 200,00 €
- 10. Estufak, bakoitzeko 40,00 €
- 11. Eszenario txikia, modulu bakoitzeko 25,00 €
- 12.- Interpretaritza maleta 180 €

Interesdunak tasa ordaintzetik edota bermea jartzetik salbuestea eskatzen badu, eta Kultura batzorde informatzaileak materiala erabiliko den ekintza gizartearen interesekoa edo herri-onurako dela proposatzen badu, Alkatetzak salbuespena onartu dezake.

